Lebetirazetama eta eragin psikiatrikoak haurrengan

Rubén Peinado Jaro[1], Lorea González Rojas[2], Lorea Imirizaldu Monente[3], Olatz Olaziregi Zabaleta[3]
1Nafarroako Ospitaleguneko BAPEa, 2Nafarroako Ospitaleguneko Psikiatriako BAMEa, 3Nafarroako Ospitaleguneko Neurofisiologia Klinikoko Zerbitzua.

Epilepsiaren diagnosia duten eta Levetirazetama hartzen duten haurretan emandako hainbat kontrako eragin jasoak daude literatura zientifikoan .

Eragin hauek Levetirazetama hartzeari utzi eta egun gutxietara desagertzen dira gehienetan.

Kontrako eraginak gehiegizkoak izan eta tratamendua utzi behar izana %5-22-an ematen da, arrisku-faktore nagusienak aurrekari pertsonal psikiatrikoak izanik.

Antiepileptikoen kontrako eraginen azterketa oso garrantzitsua da, tratamenduak porrot egitearen zergatien %40a suposatzen bait dute.



Levetirazetama gaixo pediatrikoen epilepsia mota askotan erabilgarria dela ikusi da:

krisi partzialetan, lehen mailako krisi toniko-kloniko jeneralizatuetan, tratamendu zaileko krisietan, eta abar.

Krisi partzialak dituzten 4 urtetik gorako umeetan, beste antiepileptikoekin batera, lagungarri bezala onartua dago.

2 urtetik beherakoen hainbat sindrome epileptikotan eraginkorra dela egiaztatu da ere.

Hainbat egileek monoterapian arrakastatsutzat eman dute.

Haurretan espezifikoak diren hainbat sindrome epileptikoetan erabiltzen da (Punta zentrotenporalak dituen Epilepsia Onbera, Lennox-Gastaut-en Sindromea, Gaztaroko Epilepsia Mioklonikoa, Jeavons-en Sindromea) eta, duela denbora gutxi, estatus epileptikoan.

%1-1.4: ikus-entzunezko haluzinazioak, ideia paranoideak; tratamendua hasi eta 2 egun 3 hilabete bitartean.

Maizenak (haurrengan intzidentzia handiagoa da, aurretik agertutako portaera arazoak ohizkoak bait dira tratamendu zaila duten epilepsietan)

Zitokromo P450-ren isoforma nagusiak inhibitzen ez direnez eta beste farmakoekin elkarreragin txikia duenez, medikamentu ugari hartzen dituzten gaixoetan erabili daiteke.

BIBLIOGRAFIA:

- Doumbia-Ouattara, M., Bourel-Ponchel, E., Le Moing, A.-G., Querne, L., Delignières, A., de Broca, A., Berquin, P. *Experience with levetiracetam in the treatment of childhood refractory epilepsy*. Archives de Pédiatrie 2012; 19:3-8.
- Lee, J., Song, H-K., Hwang, Y-H., Lee, H-W., Suh, C-K., Park, S-P. *Psychiatric Symptoms and Quality of Life in Patients with Drug-Refractory Epilepsy Receiving Adjunctive Levetiracetam Therapy* Clin Neurol 2011;7:128-136.
- Molins, A. Uso de levetiracetam en monoterapia. Kranion. 2011; 8:8-14.
- Sirsi, D., Safdieh, J. *The safety of levetiracetam*. Expert Opin. Drug Saf. (2007) 6(3):241-250.
- Verrotti, A., D'Adamo, E., Parisi, P., Chiarelli, F., and Curatolo, P. *Levetiracetam in Childhood Epilepsy*. Pediatr Drugs 2010; 12 (3): 177-186.
- Wade, J., Dang, C., Nelson, L., Wasseberger, J. *Emergent Complications of the Newer Anticonvulsivant*. The Journal of Emergency Medicine, Vol. 38, No. 2, pp. 231–237, 2010